

JARDUEREN MEMORIA

ASOCIACION A FAVOR DE
PERSONAS CON DISCAPACIDAD
INTELLECTUAL DE ALAVA

ADIMEN-EZINTASUNA DUTEN
PERTSONEN ALDEKO
ARABAKO ELKARTEA

WWW.APDEMA.ORG



APDEMA



JARDUEREN MEMORIA

ASOCIACION A FAVOR DE
PERSONAS CON DISCAPACIDAD
INTELLECTUAL DE ALAVA

ADIMEN-EZINTASUNA DUTEN
PERTSONEN ALDEKO
ARABAKO ELKARTEA

WWW.APDEMA.ORG



AURKIBIDEA

ELKARTEA	Misioa	3
	Ikuspegia	3
	Balioak	4
	Batzar Nagusia	4
	Zuzendaritza Batzordea	5
	Bazkideen mugimendua	5
	Ekonomia	6
	2024 zenbakitan	7
	2024ko ekintza nagusiak	8
ELKARTE-ZERBITZUAK	Familiei laguntzeko zerbitzuak	9
	Prestakuntza eta zabalkundea	10
	Apdemaren batzordeak	10
	Komunikazioa	12
ETXE BIZITZA-ZERBITZUA	Baliabideak	14
	Talde-etxeak	14
	Egonaldi laburrak	14
	Atsedenaldi-programa	15
	AVI programa	15
	Zerbitzuaren egitura	16
AISIALDIKO ETA GIZARTE PARTAIDETZA ZERBITZUA	Aisialdiko zentroak eta programak	18
	Oporaldi programa	18
	Gabonetako eta pazkoko programa	18
	espezifikoak	18
	Kirol egitaraua	19
	Boluntarioak	19
	Autokudeaketa programa	19
	Irakurketa errazeko klubak	19
ARRETA GOIZTIARREKO ZERBITZUAK	Arreta zuzena	21
	Familientzako laguntza	22
	Koordinazioa	23
	Ondorioak eta hobekuntzak	23

AURKEZPENA

Familia agurgarriak:

Poz handiz aurkezten dizuet APDEMA elkartearen 2024ko Jardueren Memoria, Zuzendaritza Batzorde osoaren izenean, eta ziur nago oso interesgarria izango zaizuela.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet Elkartearekin aktiboki lankidetzan aritzen diren erakunde, entitate eta enpresei, ekintza anitzak garatzeko beharrezkoak diren laguntza mota guztiak emateagatik.

Memoria honetan zehatz-mehatz jaso dira APDEMAk 2024an kudeaketa arloetan egindako jarduerak, eta, horretarako, funtsezkoa izan da Elkartearen giza kapital baliotsua ordezkatzen duten profesional, laguntzaile eta boluntario talde bikainaren lan leial eta konprometitua.

Urteko gertaera aipagarrien artean, APDEMAk Arreta Goiztiarreko Zerbitzuaren kudeaketaren 25. urteurrena ospatu izana dago. Foru-titulartasuneko zerbitzua da, eta 1999an Arabako Foru Aldundiarekin hitzartutakoa, garatzeko zailtasunak edo horiek pairatzeko arriskua duten haur guztiei arreta emateko. Hasieran baliabide txikia izateaz gain bere arloan aitzindaria izan zenak dimentsio handia hartu du, eta 825 haur artatu dira, guztira, 2024an. Era berean, 2024an oso garrantzitsua izan da Ereiten proiektua abian jartzea; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, ikusgarritasuna eta laneratzeko aukerak eman nahi dizkie adimen desgaitasuna duten pertsonei. Proiektu pilotua da, prestakuntza, hezkuntza-inguruneak, aniztasuna eta lan-aukerak batzen dituen.

2025. urteari begira, ElkarTEak proposatzen du administrazio publikoek eskainitako plaza berrietarako eskuragarri dauden LEPak prestatzeko programa arrakastatsuekin jarraitzea; horrekin batera, gazteei eta nahi ez diren bakardadeei zuzendutako DIS-KULTURA programak garatzen jarraituko dugu aisialdiaren arloan, 2024an hasi eta parte-hartzaileek oso ondo hartu baitituzte.

Azkenik, Zuzendaritza Batzordea oso kezkatuta dago Aiara Haraneko eskualdean ezartzeko agindutako zerbitzu berrien egoerarekin; izan ere, 2024an zehar ireki behar ziren, baina ez dira beharrezko baliabideez hornitu, oraindik, eta hori frustrazio handia sortzen ari da erabiltzaileengan eta haien familiengan.

Ikusten duzueenez, arazo zehatz horrekin, gure lana eta ahalegina eskatzen duten hainbat aldarrikapen ditugu, oraindik. Gogoan izan bazkide guztiok osatzen dugula ElkarTEa, eta elkarrekin lan egin behar dugula, helburuak lortzeko; batzuek Zuzendaritza Batzordetik, eta beste batzuek senide taldeetatik edo zentroetatik, baina denok ahalegin berarekin.

Carlos Errasti Murguiondo. APDEMAko presidentea

ZUZENDARITZA ORGANIGRAMA

BATZORDEA

BATZORDEBURUA:

Carlos Errasti Murguiondo jn.

BATZORDEBURUORDEA:

María Angeles Gamarra Mayor Martínez and.

IDAZKARIA:

Mercedes García López and.

DIRUZAINA:

José Antonio Amurrio Urraca jn.

BATZORDEKIDEAK:

María Mercedes Oraá Pérez and.

María Rosario Bueno Chandro and.

María Carmen Loreto Carranza Hernández and.

José Luis Lajas Izquierdo jn.

María Consuelo Sáez Palma and.

María Blanca Sáenz de Urturi Sáenz de Urturi and.

M^a Victoria García Cordero and.

Alain Callejo Matia jn.

BATZAR NAGUSIA	ZUZENDARITZA BATZORDEA	ZUZENDARITZA
ADMINISTRAZIOA IDAZKARITZA		

ETXEBIZITZAK TALDE-ETXEAK Batzarrak Mariturri Oion Laudio Zapardiel Sarazibar Foronda Urbasa Easo Amurrio Las Losas PROGRAMAK AVI Atsedenaldia	ASOZIATIBOAK FAMILIA ARRETA Informazioa eta orientazioa Prestakuntza eta dibulgazioa Batzordeak eta lantaldeak Arreta psikologikoa eta familia-taldeak PROGRAMAK Zahartze aktiboa Enplegurako prestakuntza Emakumeentzako ahalduntzea Gazteentzako aisialdi autonomia	AISIA ETA GIZARTE PARTAIDETZA ZENTROAK Gasteiz Amurrio Laudio PROGRAMAK Aisia Arabar Errioxan programa Opor programa Bidaieen programa Kirol programa Boluntarioak Autokudeaketa programa Irakurketa Errazeko Klubak Inklusioa jarduera komuntarioetan	ARRETA GOIZTIARRA ESKU-HARTZEA Estimulazio orokorra Fisioterapia Logopedia Familia laguntza
--	--	--	--

ELKARTEA

Gure fundazioa, 1962tik, Apdema Arabako desgaitasun intelektuala duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten duen elkarte gara, pertsona horien autodeterminazioa eta gizarteratzea lortzeko. Parte-hartzera eta bizikidetzara irekita dauden eta arreta, prestakuntza eta gizarte-sentsibilizazioarekin konprometituta dauden pertsonak osatzen dute Apdema. Elkartutako 1.200 familia inguru bazkide numerario eta laguntzaileen artean banatzen dira. Irabazi-asmorik gabeko elkarte bat gara, eta onura publikokotzat aitortu zen 1971n.

Betidanik erreferente izan gara desgaitasun intelektuala duten pertsonen eskubideen defentsan eta gizarteratzean. Gure jarduera eta aintzatespen garrantzitsuenen artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu: Adimen Urrikoen Aldeko Elkarteen Espainiako Federazioaren (FEAPS) sorreran bazkide fundatzaile gisa parte hartu izana (gaur egun, Erabateko Inklusioa), Eusko Jaurlaritzak 1991n Euskadin Gizarte Zerbitzuak Sustatzeko erakunde gisa emandako SUSTATU Saria eta Arabako Foru Aldundiaren Arabako Domina, 1994an, gure giza eta gizarte lanarengatik.

Berrikiago, 2023an, Euskadiko Irakurketa Errazeko ekimen onenaren Erraza Sariak eta ONCE Euskadi Gizarte Taldearen Urrezko Kaskabilo Saria jaso ditugu. Eta 2024an, Arabako Foru



Aldundiko Gizarte Politiketako Sailak emandako Arabako Gizarte Zerbitzuetako jardunbide egokien BeBai Saria, desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako LEP irisgarriak prestatzeko dugun programa aitortzen duena.

MISIOA

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea.

IKUSPEGIA

Etorkizun desiragarria ingurune osasungarriak, eskuragarriak eta bateragarriak eraikitzean oinarritzen da, desgaitasun intelektuala duten pertsonen autodeterminaziotik eta inklusiotik abiatuta.



Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarte bat gara. APDEMA 1962. urtean sortu zuten Arabako gurasoek. Gure misioa da adimen urritasuna duten pertsonen eta euren familien bizi-kalitatea hobetzea.

Honako hauek dira gure elkartearen balio nagusiak: justizia, kalitatea, goxotasuna, unibertsaltasuna eta parte-hartzea. APDEMAk 2 bazkide mota ditu: familiak eta kolaboratzaileak. 2023an 712 familia eta 437 laguntzaile baino gehiago izan gara.

Horretarako: Elkartea da Arabako ezinduen premietarako irtenbi-de-motaren buru da, eta honela egiten du:

- Titulartasun (erantzukizun) publikoko Kudeaketa Eredu Mistoarekin: itunpeko kudeaketa pribatua eta plangintza publikoaren mendekoa. Aldi berean zerbitzuak erabiltzen eta ematen dituen erakundea izanik.
- Gizarte-ordezkaritza handi eta zabalarekin.
- Desgaitasunari lotutako jardun-irizpide berritzaileak erabiliz.
- Familien lidergo soziala eta parte-hartze demokratiko asoziatiboa sustatuz.
- Bizi-kalitatearekin konprometitutako erakunde kualifikatu gisa, gaitasun teknikoak eta kalitateak legitimazio-iturriak osatzen dituztelako, desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien premiei irtenbideak emateko gaitasuna biderkatzen dutelako eta eraginkortasuna nabarmen hobetzen dutelako.

BALIOAK

Elkarreak bere gain hartzen ditu munduari, desgaitasun intelektuala duten pertsonen eta haien familiei eta horiek inguruko ingurunearekin duten harremanari buruzko ikuspegi partekatatu bati erantzuten dioten balioak. Honako hauek dira:

Elkartasuna	Kualifikazioa eta berrikuntza
Justizia	Eraginkortasuna
Kalitatea	Independentzia
Gardentasuna	Lankidetzatza
Ingurunearekiko harremana	Kide izatearen sentimendua
Bezeroarenganako orientazioa	Parte-hartzea
Unibertsaltasuna	

2024KO OHIKO BATZAR NAGUSIA



APDEMAren Ohiko Batzar Nagusia aurrez aurre egin zen, urriaren 25ean, Gasteizko Vital Fundazioaren aretoan. Hogeita hamaika bazkide, Zuzendaritza Batzordeko kideak, zuzendari gerentea, Giza Baliabideen zuzendaria, Aisialdiko eta Gizarte Partaidetzako zuzendaria eta APDEMAko beste teknikari batzuk bertaratu ziren. Bazkideen bi boto-ordezkapen erregistratu ziren, lehendakariaren aldekoak biak ere.

Lehendakariak hasi zuen bilera, Batzarra urrian zela azaltzeko, eta ez Elkarrearen Estatutuetako 22. artikulua jasotzen duen epean, lankidetzatza hitzarmenen urteko lehen seihilekoko likidazioak ez genituenek, kontu ikuskaritza atzeratu egin behar izan zelako. Ondoren, aurreko akta irakurri eta onartuta, idazkariak 2023ko jardueren memoria aurkeztu zuen, eta zuzendari kudeatzaileari eman zion hitza; hark memoriaren ikus-entzunezko aurkezpene egin zuen. Gaiaz galdetuta, bertaratutakoek aho batez onartu zuten.

Jarraian, idazkariak urtean zehar izandako bazkideen mugimendua azaldu zuen. Eskematikoki adierazita, 2023ko ekitaldiaren amaieran 712 ziren bazkide numerarioak; bazkide kolaboratzaileak, berriz, 437.

2023ko ekitaldiko kontuak izan ziren Batzarrean jorratutako hurrengo gaia. Joseba Amurrio diruzain jaunak 2022ko ekitaldi ekonomikoaren balantzea eta emaitzen kontua azaldu zituen zehatz-mehatz. Urteko kontuak aldeaz aurretik ikuskatu zituen BETEAN AUDITORES enpresak. Jakinarazi zuen 2023ko ekitaldian lau lankidetza hitzarmen sinatu zirela, etxebizitza zerbitzuei, arreta goiztiarrari, elkarte jarduerari eta aisialdi eta partaidetza sozialari dagozkienak. Jakinarazi zuen etxebizitzaren, arreta goiztiarraren eta aisialdiaren hitzarmenek diru-sarreraren eta gastuen artean oreka izan zela emaitza. Elkarte-jardueren eta irakurketa errazaren hitzarmenaren kasuan, 69,23 €-ko emaitza negatiboarekin itxi dira. Era berean, azaldu zuen gastu handiena langileen gastuetan dagoela, gastu horiek barne hartzen dituztela Gizarte Segurantzaren eta profesionalen soldatak, eta 2024ko otsailean argitaratu den Desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko Arabako zentroen eta zerbitzuen I. Hitzarmen kolektiboaren konturako ordainketengatik handitu direnak. Hornikuntzetan, handitu egin dira zerbitzu profesionaletako gastuak (logopedia), bai eta insulina emateko azpikontratazioa ere. Azalpenak eman ondoren, Batzarrak aho batez erabaki zuen 2023ko kontuak onartzea.

Zuzendaritza Batzordea berritzeari dagokionez, idazkariak Zuzendaritza Batzordea berritzeko hautagaiak aurkeztu zituen: Blanca SAENZ DE URTURI SAENZ DE URTURI andrea (berriz hautatua), Mercedes GARCIA LOPEZ andrea (berriz hautatua), Consuelo SAEZ PALMA andrea (berriz hautatua) eta Alain CALLEJO MATIA jauna (hautagai berria). Ondoren, presidenteari eman zion hitza, eta karguen proposamena aurkeztu zuen. Hala, Mercedes GARCIA LOPEZ andrea izendatu zuten idazkari. Batzarrak aho batez onartu zuen proposamena, eta hautagaiak aukeratuta eta izendatuta geratu ziren.

Ondoren, 2024rako proiektuak landu ziren. Presidenteak azalpen zehatza eman zien bertaratutako bazkideei. Besteak beste, adierazi zuen familiei laguntza eta prestakuntza emango zaiela 8/2021 Legea indarrean jarri ondoren, desgaitasuna duten pertsonen

gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzeko, eta bazkideei psikologia zerbitzua sendotuko zaiela. Rural Kutxarekin sinatutako lankidetza hitzarmenari esker, arreta goiztiarreko zerbitzurako Innwalk tresna robotikoaren erosketaren berri eman zien bertaratutakoei. Erakunde horrek finantzatzeko du prezioaren zati handiena, kreditu bat kontratatu baita finantzatzeko.

Beste proiektu batzuk ere aurkeztu zituen, hala nola desgaitasun intelektuala duten adinekoei egoitzetan laguntzeko programa, Arabako itunpeko ikastetxeen sarean pertsonak kontratatuzko programa, bai eta Lanbiderekin lankidetzan aritzea ere, erakunde prestatzaile gisa, eta lau proiektu berezi formalizatzea Gasteizko Udaren LEPen prestakuntza emateko.

Azken puntu gisa, 2024ko aurrekontu ekonomikoa jorratu zen, eta diruzainak egin zuen gastu eta diru sarreraren aurreikuspena. Adierazi zuenez, langile-gastuetarako aurrekontuaren guztizko zenbatekoa lanbide-kategoria guztietako soldatak berrikustearen ondorioz handitu da, Desgaitasunen bat duten pertsonen arreta emateko Arabako zentro eta zerbitzuen I. hitzarmen kolektiboan jasotakoaren, eta APDEMAko hitzarmen kolektiboan alderdi sozialarekin sinatutako aurreakordioaren arabera.

Kuotari dagokionez, 2024rako kuota 95 €-ra igotzea proposatu zen. Batzarrak aho batez onartu zuen igoera hori.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

Bazkideen Batzar Nagusiak, APDEMAren organo erabakitzaile gorena denak, Zuzendaritza Batzordeari agintzen dio gure elkartearen egunerokotasuneko gai garrantzitsuenak kudeatzeko. 2024ko ekitaldian, kideek ohiko hamaika bilera eta ezohiko bat egin zituzten.

BAZKIDEEN MUGIMENDUA

2024ko hasieran 712 bazkide numerario eta 442 laguntzaile zeuden erregistratuta. Urtean zehar bazkide numerarioen 50 alta eta 21 baja izan dira, baita laguntzaileen 8 alta eta 3 baja ere. Hala, 2023ko abenduaren 31n, 1.183 familia elkartuk osatzen zuten APDEMA. Horietatik 741 bazkide numerarioak dira, eta 442 lankide gisa laguntza eskuzabal eta baliotsua ematen jarraitzen dute.

712 Bazkideak	442 Lankideak	741 Bazkideak	442 Lankideak
2023		2024	

EKONOMIA

APDEMAk lau lankidetzak-hitzarmen sinatu ditu 2024an Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin; Etxebizitza, Aisialdi eta Gizarte Partaidetza, Arreta Goiztiarreko eta Elkarte Jarduera zerbitzuekin.

Memoria hau amaitzeko unean eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen likidazioaren zain, behin-behineko emaitza ekonomikoek defizit txiki bat eskaintzen dute Elkarte Jardueren

hitzarmenean. Arreta Goiztiarreko eta Etxebizitzetako hitzarmenek ere emaitza negatiboa izan dute; Aisialdiko eta Partaidetza Sozialeko hitzarmenak, aldiz, superabita izan du.

Kirol Programarako, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren, Gasteizko Udalaren eta Laudio Udalaren laguntza ekonomikoa izan dugu. 2024an, hainbat programa egin dira konprometitutako erakundeen lankidetzari esker.

Vital Fundazioak gure urteko dibulgazio kanpainan lagundu du. “la Caixa” Fundazioak aukera eman du “DIS-KULTURA MODO ON: Desgaitasun intelektuala eta nahi ez diren bakardadeen aurkako inklusio kulturala” programa garatzeko. Arreta Goiztiarraren esparruan, Innwalk neurorrehabilitaziorako tresna robotikoa erosi da, Rural Kutxarekin sinatutako hitzarmen bati esker. ONCE Fundazioak gure Zahartze Aktiboko programa eta gure komunikazio programaren barruko ekintzak babestu ditu. Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako LEPak Lanbiderekin sinatutako proiektu bereziei esker prestatu ahal izan dira. Gasteizko Udalak “Ahots propioa duten emakumeak” programetan, gazteentzako aisialdi-proiektuan eta elkarte-jardueretan parte hartu du, “Familia erdian” proiektuaren bidez.

Azpimarratzekoa da, halaber, Vital Fundaziotik jasotako laguntza, lokalak lagatzeari dagokionez, bai eta Vitoria-Gasteiz, Laudio eta Amurrioko Udalaren lankidetzak ere, herri honetako etxean eta irakurketa errazeko klubean laguntzen baitigu. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu gure EGEko programari atxikitako enpresa eta erakundeei, bai eta ekonomikoki lagundu diguten guztiei ere, baita anonimotasunetik lagundu dutenei ere.

Kontabilitate kudeaketaren gardentasunari eta zorroztasunari dagokienez, 2023ko ekitaldiko kanpo auditoria orokor bat

enkargatu zen; BETEANEk egin zuen, eta bazkideen Ohiko Batzarrak txostena onartu zuen. Nahitaezkoa denez, Foru Erakundeak berak xehetasunez gainbegiratu du gure kontabilitate osoa.

Eusko Jaurilaritzari ere aurkeztu zaizkio kontuak, onura publikoko eta interes sozialeko erakundea baita gurea.

2024KO DIRU-SARREREN ETA GASTUEN LABURPENA BEHIN-BEHINEKO DATUAK			
GASTUAK		DIRU-SARRERAK	
GOFE-REKIN HITZARTUTAKO ZERBITZUAK		GOFE-REKIN HITZARTUTAKO ZERBITZUAK	
Arreta Goiztiarreko Zerbitzua	1.605.656,30 €	Arreta Goiztiarreko Zerbitzua	1.605.656,30 €
Etxebizitza Zerbitzua	6.069.137,87 €	Etxebizitza Zerbitzua	6.069.137,87 €
Aisialdiko eta Partaidetza Sozialeko Zerbitzua	374.749,75 €	Aisialdiko eta Partaidetza Sozialeko Zerbitzua	374.749,75 €
Zerbitzu komunen eta asoziatiboen guztizko gastuak	624.197,36 €	Zerbitzu komunen eta asoziatiboen guztizko diru-sarrerak	623.992,72 €
GASTUAK GUZTIRA 8.673.741,28 €		DIRU-SARRERAK GUZTIRA 8.673.536,64 €	

2024 ZENBAKITAN

ERABILTZAILEAK 1.887

741
Asoziatiboak

234
Aisialdia

182
Etxebizitzak

825
Arreta goiztirra

ASOZIATIBOAK Familia bazkideak 741 Elkarriketak familiekin 369	ETXEBIZITZA ZERBITZU OROKORRAK 182 Etxeak 93 Egonaldi laburrak 24 Avi 42 Atsedenaldirako pisuak 23	AISIALDI 234 Gasteiz 183 Amurrio 15 Laudio 23 Arabar Errioxa 13
AUTOKUDEATZAILEAK 65 Gasteiz 55 Amurrio 10	KIROLA 133 Gasteiz 118 Laudio 15	ARRETA GOIZTIARRA 825

PROFESIONALAK 217

16
Asoziatiboak

10
Aisialdi

160
Etxebizitzak

31
Arreta Goiztiarra

7

2024KO JARDUERA NAGUSIAK

Ereiten, adimen-desgaitasuna duten pertsonak Arabako ikastetxeetan laneratzeko eta gizarteratzeko programa.

Lanbideren prestakuntza-zentro gisa homologatzea, hainbat prestakuntza-ekintza emateko.

Lanbiderekin gizarteratzeko eta gizarte- eta lan-berrikuntzako proiektu bereziak garatzea, adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako Gasteizko Udalaren enplegu-eskaintza publikoa prestatzeko.

Zurekin Batera, desgaitasun intelektuala duten adinekoei adinekoen egoitzetan laguntzeko programa.

Euskailuak erabiltzeko prozedura prestatzea, profesionali euskailuak kudeatzeko, kontrolatzeko eta ezabatzeko sistemetan prestakuntza ematea (Libera-Care Araua), euskailuen dokumentazioa eguneratzea.

APDEMAren Arabako Foru Aldundiaren arreta goiztiarreko zerbitzuaren kudeaketaren 25. urteurrena. Ekitaldi horretan oinarritutako dibulgazio-kanpaina.

Innowalk neurorrehabilitazio-tresna robotikoa eskuratzea, arreta goiztiarreko zerbitzuaren fisioterapia-terapian erabiltzeko.

Gizarte zerbitzuetako jardunbide egokien BeBai saria, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailak emana, LEP irisgarrien programagatik.

Desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko Arabako zentroen eta zerbitzuen I. hitzarmen kolektiboa argitaratzea. Elkartean aplikatzea.



ELKARTE ZERBITZUAK

Familiei laguntzea, informatzea eta entzutea. Horrela laburbiltzen da Apdemaren Elkarre Zerbitzuen helburu nagusia. Horregatik, profesionalen lanaren zati handi bat gure erabiltzaileen familiei laguntza ematean oinarritzen da, funtsezkoak baitira adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen bizi-ibilbidean. Ez bakarrik desgaitasuna duten pertsonen zaintzan, baita haien autonomia eta bizi-kalitatea sustatzeko erreferente pertsonal gisa ere.

FAMILIEI LAGUNTZEKO ZERBITZUAK

Zerbitzu hau desgaitasun intelektuala duen pertsonaren familia-dimentsioan zentratzen da, batez ere elkarrizketa pertsonalaren bidez, eta eguneroko gai zehatzen ebazpena errazteko kudeaketak eginez osatzen da.

Banakako arretak honakoak barne hartzen ditu:

- Adimen-desgaitasunari lotutako gaien inguruko informazioa, orientazioa eta kudeaketa.

Familiak oso inportanteak dira adimen urritasuna duten pertsonentzat. Zaindu, lagundu eta autonomia eta bizi-kalitatea sustatzen dute. Gure elkarteak euren eguneko lanean laguntzen die familiei. Prestakuntza lanak egin eta ezagutza ematen dute elkarteak.



- Hasierako ongietorria informazio edo aholkularitza bila elkartera joan diren pertsonen. 2024-an 50 familia bazkide berri sartu dira.
- Prestazio ekonomikoak. Aurreko urteetan bezala, adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako prestazio ekonomikoen eta familia babesteko neurrien gida bat egin da.
- Erakundeen baliabideei eta horiek eskuratzeko moduari buruzko informazioa.
- Erabiltzaileen eta haren familiaren datuak biltzea eta eguneratzea, datuak sistema informatikoan eguneratuta.
- Egoera espezifikoetan esku hartzea, hala nola bizi-kalitatearen hobekuntzan, familia barruko gatazketan, etorkizunaren plangintzan, etab.

APDEMAN, Batzorde izeneko lan-taldeak daude. Hauek dira APDEMAren batzorde nagusiak: Enplegu Batzordea, Okupazio Zentroen Batzordea, Erabiltzaileen Batzordea eta Adinekoen Batzordea.



ELKARTE ZERBITZUAK

- Trantsizio-uneetan laguntzea, hala nola arreta goiztiarreko zerbitzutik hezkuntza-sistemara igarotzean, hezkuntza-sistematik lan-etapara eta okupazio-etapara igarotzean, erretiroa hartzean, egoitza-zentro espezifikoetara sartzean edo bizitza independentean laguntzean.
 - Baliabide instituzional batean ere artatuta ez dauden pertsona batzuekin harremanetan egon gara, eta haiekin harremanetan jarri gara haien egoeraren berri izateko.
 - Kuota ordaintzetik salbuetsita dauden familien jarraipena egitea, haien egoera ikusteko eta, salbuespenarekin jarraitzen badute, justifikazio-txosten bat egiteko.
 - Familia-eskaerak, 8/2021 Legearen erreforma prozesal eta zibilaren aldaketetara, egoitzetako gizarte-zerbitzuetara, prestazio ekonomikoetara eta etorkizuneko plangintzara bideratu dira.
- Guztira, 369 pertsona artatu dira 2024an, 248 emakume eta 121 gizon.

PRESTAKUNTZA ETA ZABALKUNDEA

- **Hezkuntza arloko dibulgazioa**
2024an, 5 elkarrizketa egin dira GASTEIZTXO programan, Sansomendi, Samaniego, Corazonistas eta Zabalganako ikastetxeetako ikasle taldeekin. Guztira 22 neskak eta 22 mutilek hartu dute parte.
Informazio eta sentsibilizazio saioetan ere hartu da parte, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko eta EHUKo Gizarte Lan eta Lan Harremanen Fakultateko ikasleekin.
Era berean, hiru hitzaldi informatibotan parte hartu da Francisco de Vitoria Institutuan.
- **Familia taldeak**
Bi familia talde ditugu: bata Gasteizen, eta bestea Aiaraldean. Hazkunde pertsonaleko talde horiek 19 senidek osatzen dituzte, eta guztira 27 topaketatan parte hartu dute. Gainera, aurten bilera espezifiko bat egin da amentzat, espazio homogeneoago bat sortzeko eta eskaera espezifikoagoi erantzuteko.

APDEMAREN BATZORDEAK

- **Enplegu-batzordea.**
Enplegu-batzordea osatzen dute APDEMAren sei erabiltzailek eta enplegu-zentro bereziren bateko (EEE) langileek, APDEMAren erabiltzaileen 4 senidek eta EZB edo enplegu arrunteren bateko langileek, eta APDEMAren bi profesionalek. Helburua lantokietan gertatzen denaren berri izatea da, bai EZBetan, bai enplegu normalizatuetan. 2022an 3 bilera egin dira.
- **Okupazio zentroen batzordea.**
Okupazio-zentroen errealitateaz informatuta egoteaz arduratzen da, eta APDEMAren erabiltzaileen zazpi senidek osatzen dute Batzorde hau.
- **Erabiltzaileen batzordea (Mundua eraikitzen dugu)**
2016an sortu zen batzordea, eta FEVAS Plena Inclusión Euskadiren “Mundua eraikitzen dugu” proiektuaren parte da, eta desgaitasun intelektuala duten pertsonak erdigunean jartzea du helburu, parte hartzen duten elkarteetan.
2024an, 6 bilera egin dira, eta ohiko bilera APDEMAko Zuzendaritza Batzordeko ordezkariekin.
- **Adinekoen batzordea**
2019an, APDEMAko adinekoen batzordea jarri zen abian. APDEMAko 45 urtetik gorako pertsonak eta horien senideek osatzen dute. Helburua da une honetan bazkideen gutxi gorabera % 60 baino gehiagoko kolektiboaren premiak biltzea. Gaur egun 8 pertsonak parte hartzen dute, 6 emakumek eta 2 gizonek. Urtean zehar 3 aldiz bildu dira.
- **FEVAS Plena Inclusión Euskadiko batzordeak**
2024an, FEVAS Plena Inclusión Euskadiko familia batzordea behin bildu da; gaitasun juridikoko taldeak 3 bilera egin ditu; Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 4 bileratan parte hartu du, bai eta adimen desgaitasuna duten pertsonen aurkako tratu txarren prebentzioari eta horiei aurre egiteko jardunari buruzko bilera batean ere.

- **Hezkuntza-jarraipena**

Familiek eskaeraren bat egin badute, Berritzeguneko ikastetxeekin eta gizarte-langileekin harremanetan jarraitu da.

- **Etorkizunaren prestaketa**

Etorkizunak asko kezkatzen ditu APDEMAko familiak. 2024an, testamentuen, egoitza-aukeren, etxeko laguntzen, defendatzaile judizialaren izendapenaren eta herentzia onartzeko baimen judizialaren, ondasunen salmentaren eta abarren inguruko aholkularitza eta informazioa eman zaie familiei.

8/2021 Legea indarrean jarri ondoren (lege horrek desgaitasunen bat duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko legeria zibil eta prozesala erreformatzen du), epaien berrikuspenetan eta prozesuetan lagundu zaie familiei.

- **Erabateko Kalitatea Ebaluatzeko Sistema (SECP)**

2024an Erabateko Kalitatea Ebaluatzeko Sistema lantzen jarraitu da, kalitatearen etengabeko hobekuntzan aurrera egiteko konpromisoarekin. Autoebaluazio taldeak bere jarduerari ekin dio berriro, prozesu hori bultzatzeko.

- **Bestelakoak**

- 5 familiari lagundu zaie kontuak ematen.
- Erabateko inklusioko familia-unitatean parte hartu da, hiru bilerarekin.
- Bilerak Eusko Jaurlaritzarekin, IVAPEkin, Gasteizko Udalarekin eta FEVAS Plena Inclusión Euskadirekin, desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako LEPEkin lotuta.
- Koordinazio-bilerak INDESA, Gureak, EHLABE eta Atzegirekin.
- Desgaitasunaren baremo berriari buruz Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin egindako prestakuntza-saioan izan gara; bai eta enplegu publikoari eta desgaitasun intelektuala eta gaixotasun mentala duten pertsonen buruzko ECA Foroaren World Kafera, Gasteizko Udalen Hegoaldeko Bizan eta Aranak antolatutako 2 informazio-hitzalditara ere.
- Laguntza psikologikoko zerbitzua
2024an, laguntza psikologikoko zerbitzua banakako saioekin, taldeko familia-saioekin eta familia-talde guztietan egin da. Zehazki, 458 saio egin dira guztira: 141 gizonekin, eta 317 emakumeekin. Guztira 54 pertsona artatu dira: 19 gizon eta 35 emakume.

- Elkartearen beste zerbitzu batzuetan koordinatzea eta esku hartzea
Aurreko urteetan bezala, harreman eta lankidetzak estua izan dugu Arreta Goiztiarreko, Etxebizitzetako, Aisialdiko eta Gizarte Partaidetzako eta Laguntza Psikologikoko zerbitzuekin.
- Proiektuen koordinazioa

2024an, desgaitasun intelektuala duten helduentzako LEP IRISGARRIAK proiektua egin da. Eusko Jaurlaritzaren Ordenantza eta Sukaldeko Laguntzaile lanpostuetarako LEPa prestatzen 24 emakumek eta 38 gizonen parte hartu zuten. Euskararen prestakuntzan, 5 emakumek, eta 12 gizonen. Eta Vitoria-Gasteizko Udalen Zerbitzu Laguntzaileen Lan Eskaintza Publikoan, guztira 34 emakumek eta 38 gizonen parte hartu dute parte, eta horietatik 5 emakumek eta 7 gizonen parte hartzen dute euskarazko prestakuntzan.

Gainera, 2024ko ekainean, Ereiten Programa jarri zen abian, adimen desgaitasuna duten pertsonak hezkuntza inguruneetan laneratzen aitzindaria. Gaur egun, 4 pertsona sartu dira Arabako 4 ikastetxetan.

2024ko urtariletik ekainera ZAHARTZE AKTIBOA programa egin da, ONCE Fundazioari esker. 10 gizonen eta 5 emakumek parte hartu dute.

2024ko urrian, “DIS-KULTURA MODO ON: Nahi ez diren bakardadeen aurkako inklusio kulturala” hasi zen, 5 emakumeren eta 10 gizonen parte-hartzearekin eta La Caixa Fundazioak finantzatuta.

2024an, 10 emakumek parte hartu dute AHOTS PROPIOA DUTEN EMAKUMEAK ahalduztze proiektuan, Gasteizko Udaleko Berdintasun Sailaren dirulaguntza bati esker.

2024ko urtariletik abendura “DIS-KULTURA JÓVENES MODO ON” egin da, desgaitasun intelektuala duten gazteen parte hartze eta inklusio kulturalerako. 2024ko urtariletik ekainera, 16 eta 30 urte bitarteko 18 emakumek eta 14 gizonen parte hartu dute. Eta urritik abendura, 12 emakumek eta 2 gizonen.

2024an, Arreta Goiztiarreko zerbitzuak INNOWALK Pro terapia

ELKARTE ZERBITZUAK

robotikoko gailua edukitzen jarraitu du, alokairuan. Abuztuan, Rural Kutzarekin sinatutako hitzarmenari esker eskuratu ahal izan da. Gainera, “bidaia”, komunitateko jarduerak eta gorputz- eta kirol-jarduerak egin dira.

KOMUNIKAZIOA

Zerbitzu honen helburua da Elkarteak iritzi publikoan duen presentzia sustatzea eta sentsibilizatzea, bai eta APDEMA Arabako sarean desgaitasun intelektuala duten pertsonen eta haien familien alde lan egiten duen elkarte gisa posizionatzea ere. Zerbitzu honetan garatutako jardueren artean, "Ecos" informazio-buletina nabarmentzen da. 2024an, Ecos buletin digitalak 104 albiste argitaratu zituen. Lau hilean behin, inprimatutako bertsio bat argitaratzen da, gure gaurkotasuneko gai garrantzitsuenak dituenak. Komunikabide sozialei dagokienez, 2024an, Apdemaren webgunean 34.836 bisita jaso dira guztira. Bestalde, Facebook-en 1.721 “Atsegin dut” eman ziren, baina 1.853 pertsonak jarraitzen dute. Twitter-eko kontua, berriz, 896 jarraitzailek osatzen dute. Aurten, Dibulgazio Kanpaina Arreta Goiztiarreko Foru Zerbitzua Arabako iritzi publikoaren artean ezagutzera ematera bideratu da. Izan ere, 25 urte dira aurten Apdemak kudeatzen duela, Vital Fundazioak finantzaketan parte hartuta. Irailaren 4az geroztik, kanpainaren orri espezifiko bat argitaratu zuen APDEMAren webguneak (www.apdema.org/EscuelaDeSuperhéroes). Gainera, programaren eta protagonisten inguruko dibulgazio-bideoak zabaltu zituzten sare sozialek, bereziki hedatzeko sortutako mezu eta irudiekin. Aurten ere, Aiaraldera zabaltu zen kanpaina. Azaroaren 17an, Hamaiketako solidarioa ospatu genuen Laudion, animazio eta mahai informatiboarekin.

ELKARTE ZERBITZUEN EGITURA

ASOZIAZIO ZERBITZUAK			
Familiei laguntzeko zerbitzua			
Arreta sozial indibidualizatua, trantsizioetan laguntzea, aholkularitza juridikoa eta soziala, baliabideen kudeaketa			
369 pertsona artatu dira (248 emakume eta 121 gizon).		50 familia bazkide berri	
Psikologia zerbitzua			
Familientzako eta bazkideentzako banakako eta taldeko arreta.			
458 saio (54 pertsona: 35 emakume eta 19 gizon).		Vitoria-Gasteizeko familia taldea Laudioko familia taldea	
Prestakuntza eta dibulgazioa			
Sentsibilizazioa eta dibulgazioa ikastetxeetan, erakunde-sareetan eta hedabideetan.		GASTEIZTXO programa, saioak EHU n Egididen, Mondragon Unibertsitatean, Francisco de Vitorian, eta abar. 88 ikaslek hartu dute parte tailerretan (44 neskak eta 44 mutilek)	
Batzordeak			
Lidergoa, ordezkaritza eta parte-hartze aktiboa sustatzea.			
Enplegua	Okupazio zentroak	Erabiltzaileak	Adinekoak
Fevas Plena Inclusión Euskadi			
Proiektuen koordinazioa			
LEP irisgarriak -Eusko Jaurlaritza - Vitoria-Gasteizko Udala -Euskarako prestakuntza		Dis-kultura modo on: Nahi ez diren bakardadeei buruzko kultura-inklusioa	
Ereiten		Ahots propioa duten emakumeak	
Diskultura jóvenes modo on		Zahartze aktiboa	
Komunitateko Jardueren Programa		Gorputz eta Kirol jarduerak	
“Bidaia” jarduerak		Innowalk Pro	

ETXEBIZITZA ZERBITZUA

APDEMAK etxebizitza-zerbitzua garatu eta kudeatzen du, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren bidez. Bere jarduera hiru bloke handitan banatzen da: Talde Etxeak, Bizitza Independentearen Aldeko programa eta Atsedenaldi programa.

Zerbitzuaren helburu nagusia adimen-desgaitasuna duten pertsonen eguneroko bizitzaren kalitatea hobetzea da, etxeari eta dagokion komunitate-inguruneari dagokienez. Horretarako, erabiltzailearen zorientasuna bultzatu nahi dugu, etxean eta komunitate-ingurunean ahalik eta autonomia-mailarik handiena garatu eta/edo mantendu, eta erabiltzailearen bizi-estiloa normalizatu, erabiltzailearen nahi pertsonalen eta ingurune komunitarioaren arabera.

Lan-filosofia hori pertsonari zuzendutako plangintzan oinarritzen da, eta bizi-kalitatean eta laguntzak ematean jartzen du arreta. Hori dela eta, gure lana banakakoa da, eta artatzen dugun pertsona bakoitzari erantzun pertsonalizatua ematen saiatzen gara.



Etxebizitza zerbitzuak etxea eskaintzen dio etxerik ez duenari, eta modu independentean bizi nahi duten pertsonari laguntzen die. Komunitateko ekintzetan parte hartzen ere laguntzen du. APDEMAK taldeentzako 7 etxe kudeatzen ditu Gasteizen,



Zerbitzuaren jarduera probintzia osora hedatzen da. Zehazki, hamaika talde-etxe ditu. Gainera, Atsedenerako programak etxebizitza bat du Gasteizen, baina Araba osoko familiei laguntzen die. AVI programak, aldiz, Gasteizen, Oionen eta Laudion artatzen ditu pertsonak.

2 Oionen, 1 Laudion eta 1 Amurrian. Egonaldi laburrak ere eskaintzen ditu APDEMAK, kasu puntaletan. Eta eskola-adinean dauden neska-mutilen familiek atsedenean programaz goza dezakete asteburuan.

BALIABIDEAK

Talde etxeak

Gehienez ere adimen-desgaitasuna duten 10 pertsona artatzen dituzten etxebizitza-baliabideak dira. Iraunkorrak dira, eta estaldura osoa eskaintzen dute, hau da, urte osorako. Programa horietan banakako laguntza-programak ematen dira, betiere dagokion komunitate-ingurunearekin koordinatuta.

APDEMAk 11 etxe kudeatzen ditu: 7 Gasteizen, 2 Oionen, 1 Laudion eta 1 Amurrian. 2024an, 39 emakumek eta 54 gizonek bete dituzte 11

Egonaldi laburrak

Talde-etxe batean egoteko aldi laburrak dira, eta desgaitasuna duten pertsonak erabiltzen dituzte urteko sasoi desberdinetan. Senideen premia bereziek edo pertsonen premiazko egoera puntualek eragin ohi dituzte.

2024an 24 pertsonak erabili dute baliabide hori.

ZERBITZUA	EGONALDIAK	PERTSONAK	EGUNAK
Foronda	26	12	167
Saracibar	1	1	8
Oion	15	4	75
Urbasa	1	1	7
Llodio	11	6	178
GUZTIRA	54	24	435

(*): Egonaldien guztizko kopurua ez dator bat etxebizitza bakoitzeko pertsona kopuruarekin, pertsona batzuek egonaldi laburrak egiten dituztelako.





ATSEDENALDI PROGRAMA

Familiari laguntzeko programa bat da, eta eskola-adineko desgaitasun intelektuala duten haurrak dituzten familiei asteburuetan eta oporraldietan atsedena ematea du helburu. Atsedenerako programak etxebizitza bat du Gasteizen, eta urteko asteburu guztietan funtzionatzen du, ostiral arratsaldetik astelehen goizera. Gainera, bost eguneko egonaldiak ere eskaintzen ditu oporraldietan (Aste Santua, San Prudentzio edo uda). 2024an, 8-21 urteko 23 haur artatu dira guztira (9 neska eta 14 mutil). Aurten 1 familiari eman zaie baja, eta 4 familia sartu dira urtean zehar.



AVI PROGRAMA

(BIZITZA INDEPENDENTEAREN ALDEKOA)

Programa honek laguntza, orientazioa eta babesa eskaintzen die modu independentean bizitzea erabakitzen duten eta beren kabuz ase edo konpondu ezin dituzten zenbait alderditan beharrak edo gabeziak dituzten adimen-degaitasuna duten pertsonak. Aurten, zerbitzuak adimen-degaitasuna duten 42 pertsona artatu ditu (22 emakume eta 20 gizon). Gainera, modu ofizialean artatutako pertsonak ez ezik, desgaitasun intelektuala duten eta programako pertsona batekin pisua partekatzen duten bi pertsonak ere ematen die laguntza programak.

ZERBITZUAREN EGITURA

TALDE-ETXEAK	
Batzarrak	Foronda
Marriturri	Urbasa
Oion	Easo
Laudio	Amurrio
Zapardiel	Las Losas
Sarazibar	

PROGRAMAK	
AVI	ATSEDENALDIA

TALDE ETXEAK	EGONALDI LABURRAK
 Pertsonak: 93 Profesionalak: 94	 Pertsonak: 24 (54 egonaldi labur) Profesionalak: talde-etxeetako profesional berberak babesten eta zaintzen dituzte
AVI PROGRAMA	ATSEDENALDI PROGRAMA
 Pertsonak: 42 Profesionalak: 8	 Pertsonak: 23 Profesionalak: 5



AISSIALDIKO ETA GIZARTE PARTAIDETZAKO ZERBITZUA

Apdemako aisialdiko eta gizarte-partaidetzako zerbitzua laguntza-sistema antolatu eta malgua da, autodeterminazioaren, eskubideen defentsaren eta gizarteratzearen printzipioek gidatua, eta aukerak eta laguntzak ematen dizkie desgaitasun intelektuala duten pertsonaei eta komunitateari, aisiaren eta parte-hartze sozialaren esparruan, egitura profesional baten bidez eta boluntariorikaren laguntzarekin.

Aisialdiak funtsezko zeregina du gure bizitzan, 3 printzipiotan oinarrituta: giza esperientzia integrala da, pertsonaren bizitzaren alderdi guztietan eragiten baitu; pertsonen bizi-kalitateari laguntzen dio; eta NBERen giza eskubideen adierazpenean jasotako eskubidea da.

Horretarako, honako helburu orokor hauek planteatzen dira:

- Erabiltzailearen zoriontasuna sustatzea.
- Aisialdiaren eta komunitate-ingurunearen eremuan ahalik eta autonomia-mailarik handiena garatzea eta/edo mantentzea.
- Pertsonaren aisialdi-estiloa normalizatzea, haren nahi pertsonalen eta mugitzen den ingurune komunitarioaren



Aisia Zerbitzuak aisia erabilgarri eta onuragarriaren aldeko apustua egiten du. Hiriko kultur, kirol eta aisia eskaintzaz gozatzen dugu. Aisia zentro eta programetan, denbora libre pasatzeko lagunak eta taldeak egiten dira.

Oporretan, bidaiak antolatzen dira kostara, edo bisita kulturalak hiri eta herrietara. Aisian kirola egitera ere animatzen dugu.

AISIALDIKO ETA GIZARTE PARTAIDETZAKO ZERBITZUA

AISIALDIKO ZENTROAK ETA PROGRAMAK

Elkartzeko, erabakiak hartzeko, parte hartzeko eta harreman pertsonalak eta taldekoak sustatzeko tokiak dira. Haien eskaintzak argi eta garbi bereizitako espazioak ditu. Animazio soziokulturaleko eta pintxopoteko tailerrak, astean zehar. Eta jarduera inklusiboak komunitatean eta aisialdi-zentroan asteburuetan. Beste jarduera zehatz batzuez gain, Pazko, Udako eta Eguberrietako programa espezifikoak eta Kirol Programa. Gasteizko Aisialdi Zentroak marrazketa, dekorazio-arte, pilates, yoga, sukaldaritza, antzerki, dantza latino eta zunba tailerrak egin ditu 2024an. Elikadura osasungarriari, yogari eta argazkigintzari buruzko hiru tailer ere antolatu dira, eta Padel eta Sevilanas praktikatzaren diren "Astelehena" kirol jarduera. 2024an sustatu egin dira pintxo-poteak, eskaera handia dutelako, eta astero eskaintzen dira urtariletik uztailaren erdialdera arte, bai eta azaroan ere. Urrian eta abenduan hamabostean behin eskaini dira. Urtearen amaieran, 203 bazkidek, 17 boluntariok eta 11 jarduera-teknikarik parte hartu dute. Laudio eta Amurrioko Gazte Alaiak zentroek eta Arabako Errioxako aisialdi-programak ere jarduera handia garatu dute, eta bertaratze-ehunekoa eta gogobetetze-maila oso handiak izan dira. Amurrión, 17 bazkidek eta 13 boluntariok eta aisialdiko espezialista batek parte hartu dute. Laudio, berriz, 23 bazkidek, 7 boluntariok eta aisialdiko espezialista batek hartu dute parte. Azkenik, Arabako Errioxako Programan udako aisialdirako eskaintza bat jarri zen abian lehen aldiz, eta arrakasta handia izan zuen deialdiak. Urtearen amaieran, 13 bazkidek parte hartu dute jardueretan, 9 boluntariok eta aisialdiko espezialista batek lagunduta.



OPORRALDI PROGRAMA

2024an, Aisialdirako eta Gizarte Partaidetzarako Zerbitzuak udako aisialdirako alternatiba erakargarriak diseinatu zituen, eta APDEMAren erabiltzaileen artean onarpen handia izan zuten. Lurralde historiko osorako opor-eskaintza berria honako hauetan banatu zen: Egonaldiak eta Ihesaldiak eta Turismo Aktiboa. Guztira, 240 pertsonak parte hartu zuten, eta 61 pertsonak lagundu zuten. Gainera, iaz egun bateko txangoetan izandako arrakasta errepikatu zen, eta eskaintza zabaldu egin zen, Aiaraldeko astebeteko jarduerekin, hainbat astetako jarduera-arratsaldeekin. Gasteizen, eta Arabako Errioxako aisialdi/erlaxazio jarduerekin.

GABONETAKO ETA PAZKOKO PROGRAMA ESPEZIFIKOAK

Beste urte batzuekin alderatuta, Pazko Asterako eta San Prudentzio asterako aisialdiko jardueren eskaintza zabaltzea izan da beste hobekuntza esanguratsu bat, aisialdi-zentroaren barruan zein komunitatean jarduera inklusiboak eginez. Erantzuna oso arrakastatsua izan da, 236 erabiltzailek parte hartu baitute.

Gabonetako programa espezifikoa ere zabaldu eta indartu egin da, aisia inklusiboko eskaintza hobearekin. Guztira, 578 pertsonak parte hartu zuten, 27 laguntzaileri esker.

KIROL EGITARAUA

APDEMA Kirol Elkarteak asteko kirol-jardueren eskaintza bat proposatzen du denboraldi bakoitzean, eta errentagarritasun sozial handia lortzen du horrekin.

2024an, Gasteizko 97 kirolarik parte hartu dute kirol-modalitate hauetan: igeriketa, aerobica, mantentze-gimnasia eta mahai-tenisa eta padel. Aiaraidean, berriz, 15 kirolarik parte hartu dute 2 kirol-diziplinan.

Kirol lehiaketei dagokienez, nabarmentzekoa da Espainiako Igeriketa Txapelketan (FEDDI) parte hartu izana. Euskadiko Kirol Egokituaren Federazioaren igeriketa ligari ere heldu zaio, eta Judizmendi Igeriketa Klubarekin lankidetzan aritu da.

BOLUNTARIOAK

Urtarrilean, 19 boluntariok laguntzen zuten aisialdi-zentroan.

Urtean zehar 11 baja eta 9 langile berri izan dira.

Boluntarioen egoera hobetzeko, ekintza espezifikokoak ezarri dira boluntarioen lana aitortzeko, bai eta boluntarioen prestakuntza hobetzeko eta egiaztatzeko ere. Boluntarioak bilatzeko formatuak ere aldatu dira. Horri guztiari esker, urtearen amaieran 17 pertsonak parte hartu dute (13 emakumek eta 4 gizonek). Boluntario kopuru handia izan arren, oro har, denbora mugatua ematen dute laguntzen.

2024an, APDEMAko 47 boluntarioko taldea honela banatu da: 17 Gasteizen, 13 Amurrian, 7 Laudion eta 10 Arabako Errioxan.

AUTOKUDEAKETA PROGRAMA

Gaur egun, Autokudeaketa Programan 64 pertsonak hartzen dute parte (35 emakumek eta 29 gizonek).

Talde-bileretara joan direnen batez bestekoa %96koa izan da. Parte-hartzaileek 356 banakako arreta saio jaso dituzte guztira. Honako hauek izan dira beste jarduera aipagarri batzuk: Quedamos taldea, IE klubak, Liburuaren Eguna, Fevasen Irisgarritasun kognitiboko taldea, Audio Irratiko programak, Erabateko Inklusio Talde Eragilea, Enpleguaren Nazioarteko Kongresua, "Mundua eraikitzen dugu" Batzordea, Enplegu Batzordea, "Oporrak gure kasa", Fevasen laguntza duten pertsonak koordinatzeko bilerak, Ecos buletina, Lizarrako aterpetxeko Prestakuntza Ikastaroa ospitalero berrientzat, Boluntariotza Lizarrako, Zamorako eta Logroñoko aterpetxeetan, Ospitaleroen Topaketa Nazionala, Boluntariotza Gurutze Gorrian, Gurutze Gorriaren Liburutegiaren Inaugurazioa, Boluntariotza Proiektuaren jarraipena adinekoekin, "Ahots propioarekin bizi" elkartearekin koordinatua, etab.

IRAKURKETA ERRAZEKO KLUBAK

2014-2015 ikasturtean, APDEMAk Irakurketa Errazeko Klubak elkarte-jarduera jarraitu gisa finkatu zituen, irakurtzeko eta kulturarako eskubidea desgaitasun intelektuala duten pertsonen hurbiltzeko helburuarekin.

2024an, adimen-desgaitasuna duten pertsonen irakurketa errazeko 4 klub kudeatzen jarraitu da. 3 Gasteizen, 1 El Pilar Gizarte Etxean eta 2 Ignacio Aldecoa Kultur Etxean; eta 1 Amurrian, Amurrioko Kultur Etxean.

Gasteizen, adimen-desgaitasuna duten 84 pertsonak hartu dute parte, 9 dinamizatzailearen laguntzarekin, eta Amurrian, berriz, 13k, 3 dinamizatzailearen laguntzarekin.

AISIALDIKO ETA GIZARTE PARTAIDETZAKO ZERBITZUA

 AISIA ZENTROAK							
GASTEIZ		 OPORRAK Parte-hartzaileak: 240 Monitoreak: 61		 BIDAIAK Parte-hartzaileak: 92 Monitoreak: 24		 PAZKO ETA GABONETAKO PROGRAMA BEREZIAK Parte-hartzaileak: 814 Monitoreak: 27	
Erabiltzaileak: 203							
Profesionalak: 11							
Boluntarioak: 17							
AMURRIO		 KIROLA GASTEIZEN Kirolariak: 97 Kirol-taldeak: 17 Kirol-modalitateak: 5		KIROLA LAUDION Kirolariak: 15 Kirol-taldeak: 3 Kirol-modalitateak: 2		KIROLA AUTONOMIA-ESTATU MAILAKO TXAPELKETAK Txapelketak: 2 Kirolariak: 4 Monitoreak-Entrenatzaileak: 1 Kirol-modalitateak: 1	
Erabiltzaileak: 17							
Profesionalak: 1							
Boluntarioak: 13							
LAUDIO		 BOLUNTARIOAK Gasteiz 17 Laudio 7 Amurrio 13 Arabar Errioxa 10		AUTOKUDEAKETA GASTEIZ Taldeak: 3 AMURRIO Taldeak: 1		Parte-hartzaileak : 55 Bilerak: 73 Parte-hartzaileak : 10 Bilerak: 18	
Erabiltzaileak: 23							
Profesionalak: 1							
Boluntarioak: 7							
ARABAR ERRIOXA		 KLUBAK FT GASTEIZ Taldeak: 3 AMURRIO Taldeak: 1		Parte-hartzaileak: 84 Parte-hartzaileak: 13		Dinamizatzaileak: 9 Dinamizatzaileak: 3	
Erabiltzaileak: 13							
Profesionalak: 1							
Boluntarioak: 10							

ARRETA GOIZTIARREKO ZERBITZUA

Garapenean zailtasunak dituzten edo izateko arriskua duten 0-6 urteko haur guztiek eta haien familiek lekua dute gure Arreta Goiztiarreko Zerbitzuan. Hauek dira gure zerbitzuaren helburu nagusiak: haurren gaitasunak ahalik eta gehien indartzea, haren gizarteratzea sustatzea, haurra eta haren familia ingurunera egokitzen laguntzea eta prebentzioz jardutea. Horretarako, 45 minutuko banakako edo taldeko saioak egiten dira, non familiak parte hartzen duen eta laguntza eskaintzen zaion behar duen guztietan.

ARRETA ZUZENA

825 haur artatu dira guztira (597 haur Arreta Goiztiarreko Zentroan eta 488 haur logopedia-zentroetan. 248 neska eta 577 mutil).

- **Garapenaren estimulazio globala**

Estimulazio orokorrean 499 haur artatu dira, honela banatuta:



- 272 hurrek estimulazioa baino ez zuten jaso
- 39 hurrek fisioterapia/estimulazioa jaso zuten
- 186 hurrek logopedia/estimulazioa jaso zuten
- 45 hurrek estimulazioa/logopedia/fisioterapia jaso zuten

- **Fisioterapia Arreta Goiztiarrean**

Fisioterapiari 140 haur artatu dira, honela banatuta:

- 48 hurrek fisioterapia baino ez zuten jaso
- 39 hurrek fisioterapia/estimulazioa jaso zuten
- 8 hurrek fisioterapia/logopedia
- 45 hurrek fisioterapia/logopedia/estimulazioa



Arreta Goiztiarreko zerbitzuan, garapen arazoak dituzten edo halakoak eduki ditzaketen 0-6 urteko neska-mutilak artatzen ditugu.

Estimulazio, Fisioterapia eta Logopedia zerbitzuak eskaintzen ditugu.

Haur horien familiak ere artatzen ditugu eta lagundu ere egiten diegu,

ongietorria ematen diegu Arreta Goiztiarreko zerbitzuan, eta euren haurtxoei laguntzen erakusten diegu. Gurasoek parte har dezakete saioetan.

ARRETA GOIZTIARREKO ZERBITZUA

• Logopedia Arreta Goiztiarren

Arreta goiztiarrera jotzen duten haurren premien aniztasunarekin bat etorritik eta hizkuntzaren birgaitze espezifikoagoa behar duten kasuei erantzuteko, lankidetzaz hitzarmena daukagu Arabako Foru Aldundiko Ikuskaritza Zerbitzuak egiaztatutako ADARE, TIPI eta SINAPSIS zentroekin.

Guztira, 488 haur artatu dira. 249 haur logopedia-saioetara bakarrik joan dira; 186ek logopedia-saioak eta estimulazio-saioak uztartu dituzte zentroan; 8ek fisioterapia eta logopedia jaso dituzte; eta 45ek estimulazioa, logopedia eta fisioterapia.

Logopediaren esku-hartzea hiru funtsezko esparrutan gauzatu behar da arreta goiztiarren:

HAURRAREKIKO ETA BERE FAMILIAREKIKO BANAKAKO ARRETA

Arreta goiztiarreko esku-hartzea banakakoa da. Kasu bakoitza modu pertsonalean hartu behar da kontuan, eta haurren eta ingurunearen beharrak taldean ebaluatu behar dira.

FAMILIENTZAKO ARRETA ETA AHOLKULARITZA

Gurasoentzako laguntza ere banaka eskaintzen da. Beren sentimenduak adierazteko, ezagutzak eskuratzeko eta familia orekatzen lagunduko duten jardunbideak ikasteko laguntza-esparru bat eskaintzea eta haiei harrera egitea da helburua.

“LAGUNTZA TEKNIKOAK”

2024an 80 egokitzapen egin dira, igeltsuzko eserleku moldeatuak, bipedestadoreak, mini standinga, altzarien egokitzapenak, kinesiotaping bendak, etab. Gainera, errehabilitazio motorrerako egokitutako ariketa makinak erabiltzen jarraitzen da. Aurten Innwalk Pro erosi da.

FAMILIENTZAKO LAGUNTZA

Harrera: 2024an, harrera egin zaien 178 familiak esku hartu dute zentroan.

Banakako laguntza: Beren sentimenduak adierazteko, ezagutzak eskuratzeko eta familia orekatzen lagunduko duten jardun-jarraibideak ikasteko laguntza-espazio bat eskaini nahi zaie.



KOORDINAZIOA

Arreta Goiztiarreko Zerbitzuak koordinatu ditu hazteko aukerak optimizatzeko bertara jotzen duten haurren prestakuntzan inplikatura dauden zerbitzu guztiak, zuzeneko esku-hartzearen osagarri gisa. Bai barne-koordinazioko lanak, bai kanpo-koordinazioko lanak haurrak joaten diren zerbitzu guztiekin.

ONDORIOAK ETA HOBEEKUNTZAK

Aurten 25 urte bete dira APDEMA Arreta Goiztiarreko Zerbitzua kudeatzen hasi zenetik. Hori ospatzeko, festa bat egin zen irailaren 6an, Probintzia plazan, eta zerbitzuko haur guztiak eta urte hauetan guztietan gurekin dauden eta egon diren pertsona guztiak egon ziren gonbidatuta. Gainera, urteurren horren amaiera gisa, jardunaldi tekniko bat egin zen Hibridilab zentroan, bi hizlarirekin, familiei eta profesionali zuzenduta.

Aurten, terapia robotikoko aparatu bat erosi du APDEMAk, Innowalk Pro izenekoa, gorputz osorako entrenamendu intentsiboa eskaintzen duena, fisioterapiako interbentzioaren osagarri. Onurak esanguratsuak izaten ari dira, batez ere koordinazio motorrari, artikulazioen mugikortasunari, enborraren kontrolari eta tonu muskularraren erregulazioari dagokienez. Gainera, nahasmendu sentsozialak dituzten haurrek beren erregulazioa hobetzea lortzen dute, jolasean jarraitzea eta arreta jartzea erraztuz. GOFEk jakinarazi zigun jada ez zela egokia ordura arte egindako jarduerak egitea, lan globalerako funtsezkotzat jotzen ditugunak, hala nola familiekiko tailerrak, hidroterapia saioak, ortopediarako eta kanpo kontsultetarako laguntza, mediku, psikologo eta abarrentzako jarraipen txostenak...



ARRETA GOIZTIARRA	ESKU-HARTZEAK
Haurrak: 825	Estimulazio orokorra: 542 NIÑOS/AS
Profesionalak: 31	Fisioterapia: 140 NIÑOS/AS
Familiak: 178	Logopedia: 488 NIÑOS/AS

LAGUNTZAILEAK:

ERAKUNDEAK:

araba álava
foru aldundia diputación foral



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



AYUNTAMIENTO
Elciego
Zieko
UDALA



AMURRIO
UDALA
AYUNTAMIENTO

Barrundiako Udala



Laudio Llodio
LAUDIO IBAR NOBLEAREN UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LLODIO



ENPRESAK:



DIAGONAL

imesaza



EGUREN
FAMILY WINERY
UGARTE

Fournier



CORREDURIA DE SEGUROS 1. 2250



ENTITATEAK:

Vital FUNDACIÓN
FUNDAZIOA



Fundación "la Caixa"



RURAL KUTXA
GIZARTE EKINTZA · ACCIÓN SOCIAL